

Albisteen kronika

URTARRILA

***Euskaltzaindiaren Hiztegia* 843 forma berritu dira eta 2.376 moldatu**

Hiztegia sarean eguneratu du Euskaltzaindiak eta 843 forma berri jaso ditu azken sei hilabeteotan (73 sarrera eta 389 azpisarrera eta 381 ohiko lexia). Era berean, 2.376 forma moldatu edo findu ditu (2.194 sarrera eta 182 azpisarrera). **Guztira 49.471 forma ditu orain hiztegiak, 66.523 adiera eta 108.630 adibide.**

Hauexek dira azken eguneratze honetan gehitu diren sarrera batzuk: ALBORAPEN, ALIRITZIRA, AREKA, ASOZIAL, ATZEZ, AURTON, ELIXIR, OFENDITU, PONTIFIKATU, PROBESTU, SERRAILO, TAUROMAKIA.

Miriam Urkia *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* arduradunaren esanetan: **«Forma berriak sartzea bezain garrantzitsua da lehendik dagoena txukuntzea, eguneratzea, adiera batzuk egungo erabileren arabera berrantolatzea. Hiztegia argiagoa, erabilerrazagoa eta egungo beharretara egokitua izateko ezinbesteko lana».**

Hitzak lege erakusketa Baionan, Departamenduko Artxiboen gunean

2024ko urtarrilaren 9an estreinatu da eta otsailaren 9a arte izanen da ikusgai, garrantzi historikoa izan duten euskarazko testu juridikoak, arlo pribatukoak zein publikokoak, agertzen dituen erakusketa ibiltaria.

Erakusketa honen helburua da eremu juridikoan urteetan euskaraz egin den ekarria gizarteratzea eta jendeari erakustea.

Euskaltzaindiak Pirinio Atlantikoetako Departamenduarekin eta Baionako Udalarekin partaidetzan eta Eusko Legebiltzarrarekin, Nafarroako Parlamentuarekin

eta Euskal Autonomia Erkidegoko ganbera legegileekin elkarlanean antolatu du erakusketa.

Euskara Ezkabarten: paperetik ahora erakusketa Uharteko Kultur Etxean izanen da otsailaren 2ra arte

Ekintza osagarri gisa bisita gidatu irekia eta bertso-saioa antolatu dira. Urtarrilaren 18an izanen da, 19:00etan, Ekaitz Santazilia komisarioaren eta Saioa Alkaiza eta Julio Soto bertsolarien eskutik.

Erakusketaren helburua Iruñerriko euskarari begirada zabala ematea da, Ezkabarteko testuak abiapuntu gisa hartuta: garai zaharretako idazkietatik hasita, testu erlijiosoak, ordenantzak eta bestelako idazkiak bai eta azken hiztunak eta euskararen gaur egungo egoera ere.

Hobekuntzak egin dira Orotariko Euskal Hiztegian egiturari eta edukiari dagokionez

Gaur egun 146.857 sarrera eta 58.005 azpisarrera ditu Orotariko Euskal Hiztegiak eta kopuru hori handituz doa egitratze-lanak aurrera egin ahala.

13. argitaraldi honetan 77 sarrera berri, 50 azpisarrera berri eta TEI (Text Encoding Initiative) testu-kodeketaren arabera egituratutako 46.936 adibide berri agertzen dira.

Horrez gainera, edukiari dagokionez, J. Haranederren Testamentu Berriaren itzulpena (1740 ingurukoa) osorik arakatu eta bertan agertzen diren hitzen adibideak sartu dira OEHN; gainera, Georges Lacomberen dokumentu-bildumaren kopia digitalaz baliaturik, OEHN lehendik zeharbidez edo bigarren eskutik jasotako datu batzuk zuzenean egiaztatu ahal izan dira, baita gai berriak sartu ere; adibidez, *Artxuren Uskaldun eta Franzes Hitztegia* (382 sarreratan), edo *Mots basques recueillis par M. Premorena (d'Ostabat), instituteur à Aïcirits* (97 sarreratan).

Orotariko Euskal Hiztegiak euskararen aro eta euskalki guztietako lexikoa jaso eta antolatzea du xede. 1987an argitaratu zen paperean lehen liburukia eta

2005ean hamaseigarrena eta azkena. Hortik aurrera Euskaltzaindia ahalegin handia egiten ari da hiztegi horren bertsio elektronikoa gero eta aberatsagoa izan dadin edukietan eta bilaketa-aukeretan.

OTSAILA

***Hizkuntza-zuzenbidea* testu-bilduman instituzioetako batzar legegileen errege-lamenduak sartu dira**

2019ko argitaraldian 94 testu jaso ziren; hirugarren argitaraldi elektronikoan, 786 testu; laugarren argitaraldian 1.051 testu bildu ziren, eta 2024ko urtarrileko honetan 1.101 testu jaso dira.

Aurreko edizioetan bezala, bilaketa zabalak egin daitezke_5. argitaraldi digital honetan, bai eta bilaketa murriztuak ere, eta, gainera, bilaketen emaitzak batera agerrarazi. Eginkizun hori erraztu eta zehatzago egin ahal izateko, 39.609 bilatzaile gordin landu dira.

Argitaraldi honek hiru formatu ditu: digitala, ePub formatua eta PDF formatua (azken formatu biotan argitalpen osoa eskura daiteke).

MARTXOA

Eguneratu egin da *Euskara Batuaren Eskuliburua* (EBE)

196. arau berria dela eta («EBO (I). Laburtzapenak: laburdurak eta siglak (Idazkera eta morfologia)»), *Euskara Batuaren Eskuliburua* (EBE) berrikusi eta egokitu egin behar izan da atal batzuetan.

Egokitzapen horiek bi fitxa hauetan islatu dira batez ere: laburdurak (985. fitxa) eta siglak (1273. fitxa). Eta beste hauetan ere findu behar izan dira kontu batzuk:

izen berezi batzuen deklinabide-arazoak (872. fitxa), -r letraren hitz-bukaerak sortzen dituen zalantzak (1243. fitxa) eta tituluak eta kidekoak (1309. fitxa).

***Arikala* topaketa Altsasun**

Martxoaren 4an eta 5ean ikasleen artean lagunarteko euskara sustatzeko *arikalarren* lehen topaketa egin zen Altsasun. Mondragon Unibertsitateak, Euskaltzaindiak eta Ikastolen Elkarteak antolatu zuten.

Arikala egitasmoan parte hartzen ari diren Euskal Herri osoko 450 ikaslek lagunarteko euskara landu eta sustatzeko dinamikak egin zituzten bi egunez. Topaketaren bidez, lagunarteko hizkerari lotutako informazioa jaso da.

Piarres Lafitteren artxiboa webguneratu da

Neurri batean, Georges Lacomberen artxiboaren segidako lantzat har dezakegu, harekin osagarria guztiz, bi-biek Ipar Euskal Herriko historia, literatura eta euskalgintzaren iturri dokumental mamitsu eta garrantzitsuak biltzen baitituzte.

Euskaltzaindiak bere webgunean eskegi du Piarres Lafitte euskaltzale, idazle eta euskaltzain osoaren artxiboa. Egundoko bilduma dokumentala da Lafitterena, ezinbestekoa Euskal Herriko euskalgintzaren historia ezagutzeko. Kontsultagai dagoen artxiboan honako dokumentu hauek azter daitezke:

- Gutuneria: hari zuzendutako gutunak eta kasu gutxi batzuetan berak idatzitakoak; halaber, hainbat aldizkari eta proiekturen partaidetzan jasotakoak.
- Piarres Lafitteren lanak. Hiru motatakoak dira:
 - Euskalgintzari, euskal literaturari eta Euskal Herriko historiaren ikerkuntzari buruz berak sortutako lanak.
 - Editore gisa bideratutako hainbat edizioren dokumentuak.
 - Hainbat egilerengandik jasotako dokumentuak, nagusiki *Herria* aldizkarirakoak.

- Larresoro, Beloke eta Uztaritzeko ondare dokumentala: Seminario horietatik abiatuta, Ipar Euskal Herriko hainbat apaizen dokumentu sakabanatuak.
- Bertso bilduma: Ipar Euskal Herriko hainbaten tradizioari jarraituz, han-hemen jasotako bertsoak.

2024ko LAUTAN HIRU antzerki-jaialdia

LAUTAN HIRUren VI. edizioa otsailaren 8an, 15ean, 22an eta 29an izan da, eta jaialdiak «antzerkiaren gorputzari» erreparatu dio aurretik. Guztira 8 ekitaldi eskaini dira: bost antzezpen, bakarrizketa bat, tailer performatibo eta parte-hartzaile bat, eta bi irakurraldi dramatizatu (azken biak ekitaldi berean). Gainera, horietako hiru estreinaldiak izan dira.

Bilboko Udalak babesten du jaialdia, eta, urtero legez, Euskaltzaindiak elkarlanean antolatu du egitaraua, hain zuzen, Bar Bilbao, BIRA Kulturgunea eta 7Katurekin batera. Bestetik, sei izan dira lanak erakusteko hautatu diren espazioak: BIRA, Cafe Bar Bilbao, Euskaltzaindia, 7Katu gaztetxea, Kalderapeko (AEK) eta La Sinsorga.

Guztira 350 bat zale hartu ditu aurtengo edizioak.

Euskaltzaindiak *Mintzola*ren 2024ko ikerketa-sarien deialdiak egin ditu

Jakina denez, ikerketan, ezagutzaren transferentzia, prestakuntza eta sustapenean dihardu *Mintzola* 2022. urtetik. Honela, azken bi urteotako ildoari jarraituz, ahozketasunaren alorrean ikerketa sustatzeko deialdi berriak egin ditu Euskaltzaindiak, *Mintzola*ren eskutik. Deialdietan hizkeraren adierazkortasuna da lehentasunezko ikerketa-lerroa.

Lehenengoan, euskaraz egiten den ahozko jardunari buruzko zortzi gradu- eta master-amaierako lan sarituko dira (bakoitzari 1.500 euroko zenbatekoa emanda); bigarren, aldiz, ikerketa-lan monografikoak hartuko dira kontuan eta bi sari banatuko dira, bakoitza 3.000 eurokoa.

Gradu- eta master-amaierako lanei dagokionez, deialdira aurkeztu daitezkeen egitasmoak 2023-2024 ikasturtean defendatuko diren lanenak izango dira, eta lanen egitasmoak PDF formatuan eta e-postaz bidali behar dira.

Ikerketa-lanei dagokionez, deialdi honetan ikerketa-lan monografikoen proiektuak onartuko dira, gero tesiak bultzatzeko helburuz. Lanen proiektuak bakarka edo taldean aurkeztu daitezke. Nolanahi ere, unibertsitate-irakasle doktore batek bermatu behar du proiektua.

APIRILA

***Hitzak lege* erakusketa ibiltaria UPV/EHUren Carlos Santamaria zentroan**

Gipuzkoako Batzar Nagusiek, Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) eta Euskaltzaindiak *Hitzak lege* erakusketa ibiltaria aurkeztu dute gaur UPV/EHUren Carlos Santamaria zentroko Txillardegi aretoan. Euskaltzaindiak, Eusko Legebiltzarrarekin, Nafarroako Parlamentuarekin, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako batzar nagusiekin eta Euskal Herriko Unibertsitatearekin elkarlanean antolatu du proiektua.

Aurkezpen ekitaldian izan dira **Beronika Azpillaga** UPV/EHUko Gipuzkoako Campuseko Euskararen eta Kulturaren arloko zuzendaria, **Xabier Ezeizabarrena** Gipuzkoako Batzar Nagusietako lehendakaria, **Miriam Urkia** Euskaltzaindiaren Gipuzkoako ordezkaria eta **Gotzon Lobera** legelaria eta erakusketaren koordinatzailea.

Erakusketaren helburu nagusia Euskadiko eta Nafarroako bost ganbera legegileek eta Baionako Udalak gordeta dituzten euskarazko testu juridiko esanguratsuak modu erakargarrian, ulergarrian eta interaktiboan erakustea da.

Erakusketak 24 informazio-panel ditu, hiru ataletan banatuta: aldean arteko harreman juridikoak, eragin kolektiboko testu juridikoak eta testu parajuridikoak. Gainera, bi panel interaktibo, hiru panel argiztatu eta bi bitrina (jatorrizko dokumentuak erakusteko) egongo dira.

Gipuzkoari lotutako dokumentu esanguratsuen artean honako hauek aurki ditzakegu: hileta-ondorengo elizkizunak (Bergarako Udaltzatzen 1783ko akta baten itzulpena); *Españaco uritar konstituzionalen cartilla civila* (1820); Bergarako ituna (1839); Usurbilgo ordenantzak (1888) eta Gipuzkoako Batzar Nagusietako dokumentuak (1979-2022).

Hitzak lege jada izan da Gasteizen, Iruñean, Bilbon, Donostian eta Baionan (hain zuzen, Eusko Legebiltzarrean, Nafarroako Parlamentuan, Bizkaiko Batzar Nagusietan, Gipuzkoako Batzar Nagusietan eta Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Artxiboen Baionako gunean), eta UPV/EHuren Carlos Santamaria zentroan.

Euskaltzaindiak bi liburu aurkeztu ditu Sarako Idazleen Biltzarrean

Sarako Idazleen Biltzarrak 41. ahalegina egin du aurten, eta, urtero bezala, ehunka euskaltzale bildu ditu herriko kiroldegian.

Ohi duen legez, Euskaltzaindiak erakusmahaia jarri du Saran, eta azken argitalpenak erakustez gain, bi liburu aurkeztu ditu jendaurrean, hain zuzen, *Junes Casenave-Harigile: zortzi pastoral berri* eta *Margarita, Nafarroako erregina*. Aurkezpenean izan dira Ixabel Etxeberria ikertzailea, Jean-Baptiste Coyos euskaltzainburoordea eta Maider Behotegi Euskararen Erakunde Publikoko lehendakaria.

Omenaldia Piarres Larzabal idazle eta euskaltzainari

Iazko udaberrian, Jean Elissalde *Zerbitzari* idazleari eskaini omenaldiaren arrakasta ikusirik, antzeko ekitaldia antolatu du Akademiak apirilaren 19an. Gaualdi horretan, Piarres Larzabal Azkaineke idazle, apez eta euskaltzain izanaren obraz, biziaren eta herriko antzerkigintzan utzi duen ondareaz aritu dira Ixabel Etxeberria eta Jon Casenave. Pantxoa Etxegoin aurkezle-lanetan aritu da eta bideo bidezko lekukotasunak eskaini ditu gaualdian zehar (hots, Larzabal ezagutu zuen Daniel Landarten lekukotasuna eta Larzabalen artxiboko irudiak); antzezlanen irakurraldiak ere ez dira falta izan.

Piarres Larzabal Azkainen sortu zen, 1915eko maiatzaren 7an. Apaizteko ikasketak Uztaritzeko Seminario ttikian eta Baionako Seminario handian egin zituen. Soldadugoa Parisen egin zuen, bi urtez, eta han erizain titulua erdietsi zuen eta teatro-talde batean aritu zen. 1939an apaiztu zen Hazparnen eta urte berean hasi zen Bigarren Mundu Gerla; berehala, soldadu-erizain gisa altxatu zuten. Gerla ondoan, bi sail akuilatu zituen bereziki: antzerkigintza eta langile gazte giristinoen formakuntza. 1960eko hamarkadan, sekula baino gehiago, abertzaletasunaren alde agertu zen. *Enbata* kazetaren eta mugimenduaren sortzaileen artean izan zen. Euskal iheslariak gero eta gehiago izanik, 1969an, *Anai-Artea* antolatu zuen Telesforo Monzon eta Angel Arregi adiskideekin.

Antzerkigintzari doakionez, Larzabalek hemeretzi urte zituela idatzi zuen bere lehen komedia, 1934ean. *Irri eta nigar* izenburua jarri zion. Profezia bat izan zen. Gerora idatzitako lan guzietan, hain zuzen, irria eta negarra, neurri batean, nahasian erabili zituelako. Zenbat lan idatzi zuen Larzabalek? Ehun antzezlan baino gehiago, haren esanetan. Ez da kopuru makala! Piarres Larzabal 1988ko urtarrilaren 12an hil zen.

Ikastaroa Donostian: Euskara Batuaren Ortotipografia: laburtzapenak eta sinboloak

Argi duzu nola idatzi euskaraz? Nola erabili behar diren letra larriak, lodiak, etzanak, sinboloak?

Hori dena argitzen laguntzeko, Euskaltzaindiak ikastaroa antolatu du maiatzaren 7an. Hain zuzen, «Euskara Batuaren Ortotipografia: laburtzapenak eta sinboloak» izeneko. Alfontso Mujika euskaltzain osoak emango du, Akademiaren Gipuzkoako Ordezkaritzan.

Aurten eman diren ikastaroak: ekainaren 18an, Bilbon; irailaren 17an, Gasteizen; urriaren 16an, Baionan; eta azaroaren 12an, Iruñean.

2021ean abiatu zen *Euskara Batuaren Ortotipografia* (EBO) egitasmoa eta urtarrilean plazaratu ziren lehen emaitzak.

Pirinioetako hizkuntzak: lehena eta oraina erakusketa Antsoaingo udal-kiroldegian ikusgai

Pirinioetako hizkuntzak: lehena eta oraina erakusketaren irekiera-ekitaldia izan da Antsoaingo Idaki udal-kiroldegian. Bertan izan dira Marta Diez Napal Antsoaingo alkatea, Jabier Arakama Urtiaga Euskarabideko zuzendari-kudeatzailea eta Sagrario Aleman Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkaria.

Erakusketari buruzko zantzu batzuk eman ditu Sagrario Alemanek: «Askotan uste dugu Pirinioen bi aldeetan gaztelera eta frantsesa direla hizkuntza bakarrak, euskararen, okzitanieraren, aragoieraren eta katalanaren kalterako. Erakusketa honetan laburbiltzen dira hizkuntza horien ezaugarrietako batzuk eta beraien historiaren adierazpen garrantzitsuenak».

Marta Diez Napal Antsoaingo alkateak azpimarratu du erakusketak hamabost eguneko *Euskararen udaberria* zikloari hasiera emanen diola, hots, Antsoainen euskara sustatzeko antolatu duten egitasmoari.

Azkenik, Jabier Arakama Euskarabideko zuzendari-kudeatzaileak nabarmendu nahi izan du Akademiaren eta Euskarabidearen arteko lankidetzia.

Antzerki-ekoizpena sustatzeko laguntza bosgarrenez plazaratu du Euskaltzaindiak

Euskararen Akademiak 2020an sortu zuen antzerki-ekoizpena sustatzeko laguntza, Bilboko Udalaren babesarekin, eta orain bosgarren deialdia plazaratu du. 2.500 euroko laguntza emango zaio hautatutako lanari (gidoia + antzezlanaren ekoizpena).

Hautatutako antzezlanak 2025eko LAUTAN HIRU jaialdian estreinatu beharko litzateke. Laguntzaren helburu nagusia euskarazko antzerkia hauspotzea da, batez ere, pieza laburren sorkuntzari lagunduta.

MAIATZA

Testu «landuak» eta «erritmo bizikoak» 2023ko R.M. Azkue Literatura sarietan

2023ko Resurrección María Azkue Literatura sariak banatu dira gaur Euskaltzaindiaren egoitzan. Sariak emateko ekitaldian, epaimahaikideekin batera, Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Enrique Dávila BBK Fundazioaren ordezkariak parte hartu dute.

Akademiak eta BBK-k 1991tik antolatzen dituzten sari hauek idazle gazteak literatura mundura erakartzea dute helburu nagusi. Bi genero saritzen dira Azkue sarietan: narrazioa eta poesia. Genero bakoitzak bi maila ditu: A maila (10 eta 13 urte bitarteko gazteentzat); eta B maila (14 eta 17 urte bitartekoentzat).

Urtero bezala, aurten ere literatura-eremuko pertsona adituek osatu dituzte epaimahaiak, Euskaltzaindiak izendatutakoak. Hauexek izan dira aurtengo epaimahaikideak:

- A mailan: Igone Etxebarria, Jabier Kaltzakorta eta Manu López Gaseni.
- B mailan: Amaia Jauregizar, Castillo Suárez eta Patxi Zubizarreta.

Epaileen iritziz, maila handiko lanak aurkeztu dira 2023an, eta azpimarratu dute saritutako idatzietan gai originalak jorratzen dituztela gazteek, gogoeta sakonak eta interesgarriak proposatuz. Gainera, aitortu dute testu «landuak» eta «erritmo bizikoak» irakurri dituztela.

A MAILAKO sariak

Narrazioaren alorra:

- Lehen saria: *Horma*. Egilea: Harriet Mitxelena (Hautzaro ikastola, Oiartzun - Gipuzkoa).
- Bigarren saria: *Erantzun baten bila*. Egilea: Arhane Martinez (Zubi Zaharra ikastola, Balmaseda - Bizkaia).
- Hirugarren saria: *Izpien dantzaldia*. Egilea: Aitor Collado (Koldo Mitxelena BHI, Errenteria - Gipuzkoa).

- Olerkiaren alorra:
- Lehen saria: *Hiria neguan*. Egilea: Ibai Maquibar (Herri arte eskola, Errenteria - Gipuzkoa).
- Bigarren saria: *Maindire kuttuna*. Egilea: Liher Larrea (Haurtzaro ikastola, Oiartzun - Gipuzkoa).
- Hirugarren saria: *Ispilu*. Egilea: Intza Mitxelena (Haurtzaro ikastola, Oiartzun - Gipuzkoa).

B MAILAko sariak:

Narrazioaren alorra:

- Lehen saria: *Itaxura*. Egilea: Josu Arrieta (Lekaroz BHI, Lekaroz - Nafarroa).
- Bigarren saria: *Hotzikara*. Egilea: Elaia Garcia (Oteitza lizeo politeknikoa, Zarautz - Gipuzkoa).
- Hirugarren saria: *Askatasun zorabioa*. Egilea: Eneko Garcia (J.M. Iparragirre BHI, Urretxu - Gipuzkoa).
- Olerkiaren alorra:
- Lehen saria: *Garbiketa sakona*. Egilea: Naiara Gutierrez (Minas BHI, Barakaldo - Bizkaia).
- Bigarren saria: *Biluzten nauzunean*. Egilea: Elaia Garcia (Oteitza lizeo politeknikoa, Zarautz - Gipuzkoa).
- Hirugarren saria: *Aske*. Egilea: Elaia Garcia (Oteitza lizeo politeknikoa, Zarautz - Gipuzkoa).

«Euskararen Historia Soziala»ren gaineko erreferentzia bibliografikoen datu-basea berritu eta eguneratu du Euskaltzaindiak, HABErekin elkarlanean

Euskaltzaindiak *Euskararen Historia Sozialaren* (EHS) gaineko erreferentzia bibliografikoen datu-basea berritu eta eguneratu du, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundearekin (HABE) lankidetzan.

2011n argitaratutako *Euskararen Historia Soziala* (EHS). Argibide bibliografikoak izeneko liburuaren inguruan eratu zen datu-basea, betiere jakite-eremu horretarako (hots, euskararen historia soziala) baliabide argitaratuen ezagutza hedatzeko asmoarekin. Euskaltzaindiaren webgunean kontsulta daiteke («Hizkuntza-baliabideak» atalean), eta kontsultak errazteko hiru modu ematen ditu: egilearen arabera (2.571 autore), gako-hitzak erabiliz edo ikerlanaren izenburua jarritz (5.399 izenburu).

Orain, HABE Liburutegiaren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzari esker, *Euskararen Historia Sozialaren* inguruko erreferentzia bibliografikoen datu-base hau etengabe eguneratzen eta elikatzen da. «Atariaren lehen bertsioak 5.032 erreferentzia zituen eta oraingoak 5.399 ditu, HABE Liburutegiak emandako 367 erreferentzia gehitu zaizkiola», argitu du Miriam Urkia Euskaltzaindiaren Gipuzkoako ordezkariak. Urkiak gaineratu du «euskararen historia soziala interesatzen zaion edonorentzat» dela baliagarri datu-basea, «batez ere, gure hizkuntzaren historia soziala aztertzen duten ikertzaileentzat».

Bestetik, Jokin Azkue HABEko zuzendariak erakundeen arteko elkarlanaren garrantzia azpimarratu du.

Euskaltzaindiak 21 ohorezko eta 9 urgazle berri izendatu ditu

Euskaltzaindiak urgazle eta ohorezko berriak izendatu ditu gaur, Baionako Herriko Etxean egin den maiatzeko osoko bilkuran. Hona hemen ohorezko (21) eta urgazle (9) berrien izenak:

- OHOREZKOAK: Joxe Austin Arrieta (Donostia, 1949); Roman Berriozabal (Elorrio, 1957); Philippe Chareyre (Nimes, 1956); Jose Ramon Etxebarria (Gernika, 1948); Natxo de Felipe (Bilbo, 1949); Joakin Gorrotxategi (Eibar, 1953); Juanito Gallastegi (Durango, 1933); Xabier Garagorri (Andoain, 1944); Libe Goñi (Nafarroako Oteiza, 1947); Bernardo Ibarra (Iurreta, 1952); Jose Karrera (Eibar, 1938); Mariasun Landa (Errenteria, 1949); Amaia Lasa (Getaria, 1948); Mikel Lasa (Donostia, 1938); Iñaki Martinez de Luna (Gasteiz, 1950); Jose Mari Espartza (Tafalla, 1951); Pello Mariñelarena (Etxarri Aranatz, 1956); Xabier Olarra (Tolosa, 1953); Mentxu Peña (Irun, 1953); Xabier Rico (Gasteiz, 1953); Iñaki Sarriugarte (Bilbo, 1953).

- URGAZLEAK: Katixa Agirre (Gasteiz, 1981); Patri Arburua (Igantzi, 1972); Miren Basurto (Segura, 1968); Miel A. Elustondo (Azpeitia, 1958); Fermin Erbiti (Iruñea, 1964); Inma Errea (Iruñea, 1960); Fernando Rey (Iruñea, 1961); Ekaitz Santazilia (Iruñea, 1987); Patxi Zubizarreta (Ordizia, 1964).

Ekaina

Euskaltzaindiaren argitalpenak Ziburu eta Bilboko liburu azoketan

Bilbo eta Ziburuko liburu azoketan izan da Euskaltzaindia. Honela, Akademiaren argitalpenak Bilboko Liburu Azokan salgai eta ikusgai izan dira, maiatzaren 30etik ekainaren 9a arte.

Bestetik, Ziburuko 5. Euskal Liburu eta Disko Azokan ere izan da Euskaltzaindia. Ekainaren 1ean izan da Baltsan elkarteak, *Argia* aldizkariak eta Doinuelek (euskara hutsezko plazen sarea) antolatutako azoka. Aurten, 40 erakunde, elkarte, argitaletxe eta diskoetxek parte hartu dute, tartean Euskaltzaindiak. Gainera, Ziburun urtero gorazarre egiten diote euskalgintzan nabarmendu den norbaiti, eta aurten Daniel Landart antzerkigile, idazle eta ohorezko euskaltzaina izan da omendua.

Euskara ibiltaria erakusketa interaktiboa Mungiako Izenaduba Basoa zentroan

Euskara ibiltaria erakusketa interaktiboa Mungiako Izenaduba Basoa zentroan izan da ekainaren 11tik urriaren 24ra arte. Erakusketaren estreinaldi-ekitaldian parte hartu dute Alaitz Erkoreka Mungiako alkate andreak, Leixuri Arrizabalaga Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura diputatuak, Andres Urrutia euskaltzainburuak, Álvaro Parro Laboral Kutxako Bizkaiko komunikazio-arduradunak eta Adolfo Arejita *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*a egitasmoaren zuzendariak.

Erakusketa ibiltariaren abiapuntua Euskaltzaindiaren *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*a da, eta azken urteotan plazaratutako argitalpenak azaleratu bezala, euskararen ugaritasuna eta aberastasuna erakustea du helburu (lexiko mailan, izen-morfologia

zein aditz-morfologia esparruetan eta sintaxia alorrean). Hala, Euskaltzaindiak gizarteari itzuli egin nahi dio atlasa egiteko euskal gizartearengandik jasotako jakituria.

Erakusketa bost atal nagusitan banaturik dago —Tokiak, Materialak, Argia eta soinua, Natura eta Bizitza—, eta atal bakoitza atlaseko mapen hautaketa batek hornitua da. Hala, bisitaria begi-kolpe bakar batez hizkuntza-aldaera horien guztien jabe egingo da. Horrezaz ostean, jokoak, animazioak eta entzungai gisako tresnak ere erabiltzen ditu erakusketak herri-hizkeren aberastasunean murgiltzeko.

Halaber, erakusketaren mamia *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*a den neurrian, *Euskara ibiltariaren* xedea ere bada egitasmoaren historia gizarteratzea eta hizkuntza-atlasa lantzeko erabilitako metodologia, materialak eta bestelakoak ezagutzera ematea.

Garazi Domínguez, Maddi Ormazabal, Odei Guirado eta Ana Jaunarenaren gradu- eta master-amaierako lanak saritu ditu Mintzolak

Euskaltzaindiak, *Mintzola* proiektuaren bidez, euskaraz egiten den ahozko jardunari buruzko gradu- eta master-amaierako zortzi lan saritzeko deialdia argitaratu zuen 2024ko martxoan. Ikertzaile gaztea edo hasiberria doktoretza-tesiraino eramango duen ibilbidean, aurreko erabakiak eta urratsak ere garrantzitsuak dira, eta hori aitortzea eta Unibertsitateko edozein jakintza-alorretatik abiatuta euskaraz egiten den ahozko jarduna ikergai gisa aukeratu izana saritzea da deialdi honen helburua. Denera, sei eskaera aurkeztu dira deialdi honetan, hiru eskaerak gradu-amaierako lanen egitasmoak dakartzate eta beste hirurek master-amaierako proposamenak. Epaimahaiak ondoko lau egitasmo hauek hautatu ditu:

Hitz funtzional goiztiarrak. Haur euskaldun elebakarren hizkuntzaren jabekuntzaren azterketa. Egilea: Garazi Domínguez Mezquita

Euskal hizkeraren erritmoa. Egilea: Maddi Ormazabal Sudupe

Hezkuntza formalean, aisialdi-antolatua eta ludikotasuna ardatz, euskarazko hizkera informalaren ikas-irakaskuntza. Zailtasunen gainetik onura anitz. Egilea: Odei Guirado Irasuegi

Nokaren hingatzea Ortzaitzen. Egilea: Ana Jaunarena Mendiondo

Hauek izan dira kontuan hartutako ebaluazio-irizpideak:

Ikerketaren helburuen egokitzapena *Mintzolak* zehaztuta dituen iker-lerroetara.

GRAL/MALen kalitatea: ikerketa-gaia eta helburua ondo zehaztuta egotea. Metodologia egokia izatea eta ondo garatua egotea. Lana argi eta ondo idatzita eta egituratua egotea.

GRAL/MALen garrantzia eta originaltasuna: lanak jakintzari egindako ekarpena, maila teorikoan zein metodologikoan egindako berrikuntzak. Ikuspegi interesgarria eskaintzea eta etorkizunerako lan-ildoak irudikatzea.

Hautatutako proiektu bakoitzak 1.500 euro gordin jasoko ditu.

Azken eguneratzearekin, 50.535 forma jasotzen ditu *Euskaltzaindiaren Hiztegiak*

Azken sei hilabeteotan, Euskararen Akademiak 1.103 forma berri jaso ditu bere hiztegian (386 sarrera, 434 azpisarrera eta 283 ohiko lexia). Era berean, 2.524 forma moldatu edo findu ditu. Eguneratze horrekin, 50.535 forma jasotzen ditu *Euskaltzaindiaren Hiztegiak*, 68.198 adiera, 111.193 adibide eta 519 esaera zahar.

Euskaltzaindiak etengabe osatzen eta berrikusten du hiztegia, eta urtean bitan sareratzen ditu berrikuntzak. 2016an, bigarren argitalpena paperean atera zenetik egiten du horrela, eta 2024ko lehen urte-erdian eginiko lanaren emaitzak jasotzen ditu gaur sareratu den eguneratzeak.

Gogoratu behar da, gainera, *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* erabilera hobetu egin zela 2023an: Batetik, bilatzaile berria garatu zen, funtzionalagoa, bilaketa-aukera berriak eskaintzen dituen; bestetik, hitzak aurkitzeko bide gehiago ematen ditu orain bilatzaileak eta, beraz, askoz zehatzagoa da.

Hiztegia etengabe berrikusten da

Forma berriak landu dira, bai, baina hiztegiko arduradunek sarritan azpimarratzen duten legez, bestelako lanak ere garrantzia handia du, hain zuzen, lehendik dagoena txukuntzea, eguneratzea, adiera batzuk egungo erabileren arabera berrantolatzea... Hiztegia argiagoa, erabilerrazagoa eta egungo beharretara

egokitua izateko ezinbesteko lana. Miriam Urkia *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* arduradunak behin eta berriz gogorarazten digu kontu hau.

Oraingo eguneratzean landutako formen kopurua handia da (1.103 forma berri). Esaterako:

Corpusetik eskuratuak: FLEXO, FOBIKO, ENPASTE, BIORRITMO, ADIMEN ARTIFIZIAL, ARRAIN URDIN, ARRAIN ZURI, HEZURRAK HAUTSI, KORRONTE ALTERNO, LASAITUA HARTU, GAUPASA EGIN, GREBA EGIN...

Azken eguneratzean hasitako bidetik, ohiko lexiak sartu dira hiztegian (forma konplexu gardenak, definiziorik gabe ulertzen direnak, definiziorik behar ez dutenak, baina hitzen konbinazio egokia adibide bidez erakutsi nahi dutenak). Adibidez: ARRAUTZA(-)GORRINGO, ARRAUTZA(-)ZURINGO, IRRATIA PIZTU, IRRATIA ITZALI, TELEBISTA PIZTU, BETAURREKOAK JANTZI, GOL(-)ZAPARRADA, KREDITUA ESKATU, KREDITUA EMAN...

Exonomastika Batzordeak berrikusitako arauetatik jasotako Espainiako Erresumako eta Frantziako Errepublikako herritarrak: ARAGOIAR, HUESCAR, ZAMORAR, LANDESTAR, PERPINYAR, PROVENTZAR...

Baina askoz gehiago dira zuzendu, osatu edo moldatu diren formak. Horrek hiztegia etengabe berrikusten dela adierazten du (adierak, definizioak, oharrak, erabilera-markak, bai eta adibideak ere). Esaterako:

Definizioa: HAGINAK ERAKUTSI (lehen: ‘**Hortzak erakutsi**’, orain ‘**Norbaitek, erasotzen dionari, aurre egiteko prest dagoela adierazi.**’)

Adiera berria: POLAR (4 adj. **Jantziez mintzatuz, forru polarrez egina. 5 iz. Forru polarrez eginiko jaka.**)

Oharra: ZIUR IZAN (*da* ad.-lok. (Perpaus osagarri bat hartzen duela. **Zalantzarik ez izan.**)

Erabilera-marka: euskalkia (AROTZERIA *Heg.*, *zirkindu batez ere bizk.*), erregistroa (EULI-KAKA IZAN *beh.*), jakintza-arloa (ATZEGOARDIA *mil.*, PASTORAL *antz.*)

Garai batean aditz-motarik gabe jasotzen ziren azpisarreretako aditz-lokuzioak osatzen dihardugu. Eguneratze honetan 515 landu ditugu. Adib.: ARNASA BOTA *du* ad.-lok.

Jon Casenave hizkuntzalaria euskaltzain oso izendatu du Euskaltzaindiak

Euskararen Akademiak euskaltzain berria izendatu du gaur, Gasteizko Goiuri jauregian egin den osoko bilkuran. Euskaltzain osoek bozketa egin dute Beñat Oihartzabal emeritu izatearen ondorioz sortutako hutsunea betetzeko, eta Jon Casenavek erdietsi du Euskaltzaindiaren Arautegiak eskatzen duen gehiengo osoa. Gogoratu behar da Beñat Oihartzabal emeritu izatera igaro zela martxoan (hain zuzen, 75 urte bete zituen martxoaren 17an), eta hilabete horretan bertan zabaldu zela hautagaiak aurkezteko epea. Hautagai bakarra aurkeztu zuten euskaltzainek maiatzeko osoko bilkuran (Jon Casenave), eta gaurko bilkuran izendatu dute euskaltzain oso hizkuntzalari lehunztarra.

Orain, zortzi hilabeteko aldia izango du euskaltzain oso berriak sarrera-hitzaldia prestatzeko, eta epe berdina izango du erantzunezko idazkia egin behar duen euskaltzainak berea prestatzeko. Geroago, harrera-ekitaldia egingo da.

Euskaltzain berriaren profil laburra:

Lehutzen (Lapurdi) jaio zen **Jon Casenave**, 1957ko uztailaren 4an. Euskal Ikasketetan doktorea da (Bordele Montaigne Unibertsitatea) eta unibertsitate bereko irakasle emeritua. Iker laborategiko kidea ere bada, eta Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu zuen 2003ko urtarrilaren 31n. Euskaltzaindiaren Hiztegitagintza Batzordeko kide (1987-1989) eta Literatura Ikerketako batzordekide izan da (1993-2017). Dozenaka ikerketa-artikulu idatzi ditu Casenavek, eta publikatu dituen liburuetatik honako hauek nabarmendu ditzakegu: *De l'article de presse à l'essai littéraire* (2002, UNED), *Euskal literaturaren historiaren historia* (2012, Utriusque Vasconiae) eta *Euskal literaturaren historiaren historia: gurea nola konda?* (2021, Euskaltzaindia).

Noeren Ontzia plazaratu du Euskaltzaindiak, denon memoria literario komuna osatzeko ahalegina

Euskaltzaindiak atari digital berria jarri du euskal gizartearen esku: *Noeren Ontzia*. Baina, zer da *Noeren Ontzia*? Bada, memoria literario komun bat osatzeko ahalegina. Garai eta euskalki guztietako testu hautatuak eskainiko ditu, euskaraz sortuak edo beste hizkuntza batzuetatik euskarara ekarriak. Irakurleak gaurko

grafiaz eta morfologiaz aurkeztuta aurkituko ditu, eta jatorrizko testura jotzeko aukera ere izango du. Testuok online egongo dira, profesionalki editatuta, ilustratuta argazki edo bestelako irudiekin, hornituta bertsio musikal batera edo film batera eramango duten estekekin, eta, noski, etiketatuta, erabiltzailea erraz irits dadin haietara.

Norentzat sortu da *Noeren Ontzia*? DBHko eta Batxilergoko ikasleak gogoan hartuta diseinatu da batez ere, baina baliagarria izan nahiko luke unibertsitateko ikasleentzat eta euskalategi zein hizkuntza-eskolentzat, eta baita ikasmaterialak prestatzen diharduten Berritzegune eta argitaletxeentzat ere, edota Irakurketa Plana hornitu nahi duten ikastetxeentzat. Esaterako, eman dezagun historia irakasle batek Bigarren Mundu Gerrari buruzko testu bat nahi duela, gelan irakurtzeko: bilatzailean «Bigarren Mundu Gerra» idatzi, klik egin, eta garai horri buruzko artikuluak, kronikak, testigantzak, bertsoak aurkituko ditu.

Bestalde, euskaldunon bizimodua nolakoa izan den jakiteko, kanpotarrek gutaz idatzi dutenari erreparatu beharra dago, eta hori ere jasoko da *Noeren Ontzi* honetan.

Beraz, idazki-mota asko, genero guztietakoak, jasoko ditu *Noeren Ontziak*, ez literarioak bakarrik: elkarrizketak, testigantzak, gutunak, bando-, panfleto- edo mitin-zatiak edota prentsa-artikuluak (Gasteizko martxoaren 3ko gertakarien lekuko izan zen Juan Jose Zearretak aste hartan bertan *Anaitasunan* argitaratutakoa, esate baterako). Testu esanguratsuak betiere, historialari batek bere ikerketalanetarako aintzat hartuko lituzkeenak, eta irakasleari, mikroistorioetatik abiatuta, makrohistoriaren edo historia orokorraren kontzeptuak lantzeko baliatuko zaizkionak.

Honela, sei ataletan banatuta egongo dira testuak: Historia, Herri-kultura, Hizkuntza, Literatura, Ahozko Literatura, Gaurko Gizartea eta Abestiak.

Bilboko Udalak eta Euskaltzaindiak berritu egin dute euskararen erabilera hirian sustatzeko konpromisoa

Juan Mari Aburto Bilboko alkateak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak bi erakundeen arteko urteroko lankidetza-hitzarmena sinatu dute. Bi hamarkada

baino gehiago daramatzate erakundeok elkarrekin lanean, hain zuzen, Bilboko hirian euskararen erabilera normalizatu eta hedatzeko ahaleaginean.

Euskaltzaindiak euskara sustatzeko hainbat egitasmo bideratuko ditu Nafarroan

Nafarroako Gobernuak eta Euskaltzaindiak 2024ko lankidetzahitzarmena sinatu dute gaur. Euskarabideak garatutako hitzarmen honi esker, erakusketak, argitalpenak, ikerketa-lanak eta toponimia-proiektuak egin ahal izango dira, besteak beste.

UZTAILA

Goizuetan noka berreskuratzen hasteko ikerketa-proiektua saritu du Mintzolak

Goizuetan noka berreskuratzen hasteko ikerketa-proiektuak jaso du ikerketa-lan monografikoen saria. Euskaraz egiten den ahozko jardunari buruzko ikerketa-lan monografikoak sustatzeko helburua du deialdiak, eta Oihana Lujanbio Begiristainek (Goizueta, Nafarroa, 1982) eskuratu du saria. Ikerlariak 2025eko otsailaren 28ra bitarteko epea izango du proiektua ondu eta aurkezteko.

Datozen hilabeteetan, ikergai izango ditu Goizuetako noka formak zabaltzeko bideak; praktikak sustatuko ditu, eta aztertuko du horiek eraginik baduten erabileran; helburu izango ditu nokaren galeraren arrazoiak ezagutzea eta herritarren hausnarketa eragitea; azkenik, Goizuetan noka mantendu duten hiztun-taldeen jardunbide onak ere bilduko ditu.

Dena den, hau ez da izango Oihana Lujanbiok Goizuetako euskarari buruz egiten duen lehen lana. Besteak beste, ikerlariak honako lan hauek burutu ditu azken urteotan, bakarka edo lankidetzan: *Hizkuntza-aldakortasuna Goizuetako euskaran: emaitza gehiago*. *Euskal hizkuntzalaritzaren egungo zenbait ikerlerro* (Udako

Euskal Unibertsitatea, 2014); *Hizkuntza-aldakortasuna Goizuetako euskaran* (Uztaro / Udako Euskal Unibertsitatea, 2012); *Goizuetako azentuaz zerbait gehiago: oharrena* (ASJU / UPV/EHU, 2009); *Goizuetako azentuera. Gramatika jaietan* (UPV/EHU, 2008). Azken biak Jose Ignacio Hualderekin batera egin zituen.

Euskaltzaindiaren Hiztegia (Tutoriala-5): Unitate fraseologikoak

Azken urtean, *Euskaltzaindiaren Hiztegiari* buruzko lau tutorial argitaratu ditugu. Honako hau da bosgarrena.

Tutorial berri honetan aurrekoetan ikusi ez genituen ezaugarri batzuk agertuko dira, esaterako, unitate fraseologikoak (hitz konbinazioak).

Tutorialen helburua *Euskaltzaindiaren Hiztegiari* probetxua ateratzen ikastea da. Hiztegiara jotzen dugunean, hitz baten esanahia zein den jakitearekin konformatzen gara, baina *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* askoz informazio aberatsagoa eskaintzen du.

JAGONET eguneratu du Euskaltzaindiak, 52 fitxa berri erantsiz

Aldika-aldika egin ohi duen eran, JAGONET kontsulta-zerbitzuko datu-basea eguneratu du Euskaltzaindiak: 52 fitxa berri eskegi ditu, zalantza lexiko, ortotipografiko, onomastiko eta morfosintaktikoekin.

Aldi berean, lehendik zeuden fitxetarik 10 aldatu egin behar izan dira, Euskaltzaindiak azken bi urteotan onartu eta argitaraturiko azken arauetara egokitzeko haiek; alegia, laburtzapenei buruzko 196. arauarekin, sinboloei buruzko 197. arauarekin eta letra-estiloen 198. arauarekin bat etortzeko.

Momentu honetan, JAGONETek hizkuntzari buruz herritarrek bidalitako galderei emaniko erantzunen 890 fitxa adierazgarri dauzka sarean kontsultatzeko moduan: 2020ra arteko 686ei 80 erantsi zitzaizkien 2022an, beste 72 fitxa 2023an eta, oraingoan, 2024an, beste 52.

JAGONET hizkuntzaren gaineko kontsulta-zerbitzu bat da, Akademiak Internet bidez herritarren esku jartzen duena. Zerbitzuaren helburua da euskararen erabilera

zuzena eta egokia sustatzea, eta haren ardura hizkuntza-argibideak plazaratzea eta herritarrek hizkuntzari buruz bidalitako galderei erantzutea.

Bi bide ditu erabiltzaileak hizkuntza-zalantzak argitzeko: horiek datu-basean bilatzea eta, erantzunik aurkitu ezean, galdera egitea.

«Euskararen normalizazioa eta normatibizazioa XXI. mendean» espezializazio-diploma jarri dute abian Mondragon Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak

«Euskararen normalizazioa eta normatibizazioa XXI. mendean» espezializazio-diploma jarri dute abian Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak eta Euskaltzaindiak, UZEI eta VICOMTECH erakundeen kolaborazioarekin. Honela, euskararen normalizazioak eta normatibizazioak XXI. mendean izan ditzaketen nondik norako garrantzitsuenei buruzko prestakuntza sendoa eman nahi du *«Euskararen normalizazioa eta normatibizazioa XXI. mendean»* espezializazio-diploma berriak, etorkizuneko profesionalak sortzeko asmoz.

Espezializazio-diploma teoriko-praktikoa izango da, eta irakasleak Euskaltzaindiaren egitasmoetan ari diren euskaltzainak eta Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakasleak izango dira.

Euskaltzaindiko egitasmoetarako prestakuntza

Euskaltzaindiak bere eginkizuna, egitasmoak eta horien gizarteratze-lanak aurrera eramateko, profesional berriak erakarri eta prestatu nahi ditu, Akademiak sorreratik dituen bi sailetan jardun dezaten, hain zuzen, Iker Sailean (euskararen estandarizazioa XXI. mendean aztertzea da horren eginkizuna) eta Jagon Sailean (euskararen erabilera soziala sustatzea du helburu, horretan diharduten gainerako eragileekin batera lan eginez).

«Euskararen normalizazioa eta normatibizazioa XXI. mendean» espezializazio-diploma bukatuta profesionalak gai izango dira arlo horietan orain arte egin den ibilbidea azaltzeko bere testuinguru sozialean eta historikoan egoki kokatuta, baita arlo horietako etorkizuneko erronka nagusiak identifikatzeko eta horiei erantzuteko ere. Besteak beste, hauek izan daitezke espezializazio-diploma egiten duten pertsonen lanbideak:

- Euskaltzaindiaren egitasmoetako teknikaria: corpusgintza, lexikografia, dialektologia, onomastika, morfosintaxia, hizkuntza zuzenbidea, euskararen erabilera soziala...
- Espezializazio-diploman lantzen diren gaien arloko teknikaria erakunde publiko, pribatu eta elkarteetan.
- Espezializazio-diploman lantzen diren gaien arloko ikertzailea.
- Euskara-teknikaria erakunde publiko, pribatu eta elkarteetan.

Hobekuntzak egin dira Orotariko Euskal Hiztegiaren, egiturari eta edukiari dagokionez

Orotariko Euskal Hiztegiaren argitalpen berria edukiz aberastuago ez ezik itxuraz ere berritua datorkigu. Aurkezpena argiagoa da, erabilera erraztu zaio eta sarrera osoan bilaketak egiteko aukera du orain. Bilaketak izugarri findu daitezke adibidetegian mendearen, euskalkiaren, egilearen eta obraren arabera iragazteko aukerari esker. Erreferentzia bibliografikoetako laburduren esanahia jakiteko nahikoa da sagua erabiliz kurtsorea gainean jartzea.

Honela, 14. argitaraldi honetan 154 sarrera berri, 243 azpisarrera berri eta TEI (*Text Encoding Initiative*) testu-kodeketaren arabera egituraturako 48.521 adibide berri agertzen dira. Guztira 147.011 sarrera eta 58.248 azpisarrera ditu hiztegiak. Horietan, 716.914 adibide daude TEIren arabera egituraturik.

Horrez gain, edukiari dagokionez,

- Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoaren emaitzak (278-442 galderatakoak) arakatu eta gehitu dira.
- Grenobleko liburutegian gordetzen den Oihenarten poesien 1657ko argitalpenaren alean agertu diren (eta orain arte ezagutzen ez ziren) poesietatik adibideak aukeratu eta sartu dira (Gidor Bilbaok ASJU aldizkarian eginiko ediziotik hartu dira).

Labayruk eta Euskaltzaindiak bost urterako lankidetza-hitzarmena sinatu dute

Labayru Fundazioak eta Euskaltzaindiak lankidetza-hitzarmena sinatu dute gaur Akademiaren egoitzan. Hitzarmenaren eskutik, ondorengo bost urteetan erakundeok lankidetza-proiektu zehatzak bideratu eta garatuko dituzte, euskararen eta euskal kulturaren inguruko irakaskuntza, ikerketa eta pedagogiaren eremuan.

ABUZTUA

Ahoskera ikastaroak Baionan eta Gasteizen

Euskaltzaindiak ahoskera ikastaro bi antolatu ditu urrian. Lehenengoa Baionan izan da, urriaren 2an, eta bigarrena Gasteizen, urriaren 11n.

Baionan Lourdes Oñederra eta Julia Marin izan dira irakasleak; Gasteizen, Irantzu Epelde, Oroitz Jauregi eta Julia Marin. Bi ikastaroak goizez izan dira (09:15-13:30).

Saio teoriko-praktikoak irakasle, irakaslegai, esatari eta, oro har, ahozko hizkuntzan interesa dutenentzat antolatu ditu Akademiak.

IRAILA

Ipar Euskal Herriko euskarazko poesiaren argiak eta itzalak aztertu dira Irailekoak egitasmoaren bigarren edizioan

Irailekoak egitasmoari esker, Itsasu herria euskal poesiaren hiriburu bilakatu da bi egunez, hain zuzen, irailaren 28an eta 29an. Euskaltzaindiak, literaturari dion atxikimendua adierazte aldera, poesiari eskainitako asteburu bat antolatu

du bigarrenez Lapurdiko txoko eder horretan. Itsasuko Herriko Etxearekin batera egin du, Euskararen Erakunde Publikoaren eta Euskal Kultur Erakundearen babesarekin.

Aurtengo jaialdia (iazkoa Lekeition antolatu zen) irailaren 28an, egun osoz, eta 29an, goizez, izan da, eta olerkari, musikari, itzultzaile eta ikertzaile ugari parte hartu du bertan. Egitasmoaren nolakotasunak Andres Urrutia euskaltzainburuak laburbildu ditu: «Norbaitek esan lezake honelako ekintzak antolatzea ez dela Euskaltzaindiaren funtzio berezkoa, printzipioz berari dagokionari ekin beharko liokeela, hau da, hiztegigintzari, lexikografiari, toponimiari eta abarri... Eta horretan bagabiltza. Baina gogoratu behar da, halaber, Akademiak betidanik izan duela euskal kultura sustatzeko bokazioa eta grina, bere hastapeneko helburuetatik gaurdaino. Euskal Herriko Bertsolarien sei txapelketa nagusi antolatu zituen bere garaian Akademiak; besteak beste, EIZI Eren eta Euskal Idazleen Elkartearen sorrerak bultzatu zituen, euskarazko lehen agiriak banatu zituen, eta abar. Beraz, erabat naturala da Euskaltzaindiarentzat *Irailekoak* bezalako egitasmo bat antolatu eta sustatzea. Beste horrenbeste esan daiteke Bilbon antolatzen dugun *Lautan Hiru* antzerki-jaialdiari buruz ere».

Okzitaniarazko literatura eta Alidé Sansen kontzertua

Lehenengo egunean, irailak 28 dituela, Ipar Euskal Herriko poesiaren nondik norakoak aztertu ditu Katixa Dolhare-Zaldunbide irakasleak, Sanoki gelan. Hitzaldi mamitsu eta zinez interesgarria izan da. Ondoren, Itsasuko Gaineko plazan, poesia-irakurraldia izan da Anjel Erro, Maddi Sarasua eta Harkaitz Canorekin, ekitaldia Pantxix Bidarte musikariak girotu du. Arratsaldean, *Munduko Poesia Kaierak* (Susa argitaletxea) egitasmoari eman zaio bide, emanaldi ibiltari batekin. Egun berean, baina gauez, kontzertu bikoitza izan da, hain zuzen, Maddi Oihenart eta Jérémie Garatek eta Alidé Sansek eman dutena. Itsasuko elizan izan da, eta azpimarratu behar da Alidé Sansek estreinakoz eman duela kontzertu bat Euskal Herrian.

Azkenik, Itxaro Bordak gogoratu du *Irailekoaken* euskal poeten lana gizarteratu nahi dela batez ere, baina beste bazter batzuetako poeten lana aherentzi gabe: «Zentzu horretan, mintzaldi interesgarria eman du Sergi Javaloyes idazle eta itzultzaileak Itsasuko haurtzaindegian (Elizalden), bertan okzitaniarazko literatura aztertuko duela sakonki. Ondoren, irakurraldi elebiduna izan da toki berean, Aurelia Lassaca poeta okzitaniararen eta Coralie Nazabal musikariaren eskutik».

SERGI JAVALOYES (1951)

Aljeriako Oranen sortu idazleak bere haurtzaroa eta bizi gehiena Nay aldean pasatu du. Bearnesa bertan ikasi zuen. *L'ora de partir* [Partitzeko tenorea] nobelarekin egin zen ezagun 1997an eta literaturaren alor asko jorratu ditu, itzulpena eta poesia bereziki. Luzaz Calandreta eskola-elkartearen presidente izan zen. *L'homme est un ours qui a mal tourné* (2022) [Gaizki bihurdikatu den hartz da gizakia] izeneko bere azken eleberria frantsesez publikatu du In-8 argitaletxean.

AURELIA LASSACA (1983, Okzitania)

1983an Tarn eta Garona departamenduan sortu eta bertan bizi den Aurelia Lassac poesia idazten du okzitanieraz eta frantsesez. Literaturako bere doktoretesia okzitanierazko XVII. mendeko antzerkiari eskaini dio. Nazioarteko hainbat festibaletan parte hartu du. Musikari askoren laguntzaz agertzen da taula gainean. Bere liburu gehienen edizio elebidunak Bruno Doucet etxean aurkitzen ahal dira, hala nola 2023an argitaratutako *Frontières/Mugak* izeneko antologia.

Jarduera osagarriak

Itasun poesiari presentzia handiagoa emateko, udaldian garai eta geografia askotako egileen bertso-lerroz jantzi dira herriko erakusleihoak eta Herriko Etxea bera. Tartean, Forugh Farrokhzad, Anne Sexton, José Luis Otamendi, Miren Agur Meabe, Aurelia Arkotxa, Bernardo Atxaga, Raymond Carver, Angel Erro, Castillo Suárez, Itxaro Borda, Jon Gerediaga eta Alejandra Pizarnik-en bertsoak erakutsi dira. Gainera, eta iraileko egun horietan egindakoaren lekukotza jasotzeko, *Iraileko Paperak* aldizkariaren bigarren zenbakia plazaratu da, «oroigarri intelektual-poetikoa gisa». Aurten, Christine Etchevers margolariak edertu du jaialdian parte hartzen duten poeta eta ikusleen artean banatuko den argitalpen hori.

Ikerlan «osoa eta landua» ondu dute Pello Apezetxea ikerketa-bekaren irabazleek

2023an, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak eta Euskaltzaindiak Pello Apezetxea Zubiri euskaltzale goizuetarra omentzeko lehen beka sortu zuten. Apezetxea arlo anitzetako ikertzailea, ekintzailea eta sustatzailea izan zen, baina bereziki nabarmentzekoa da euskara babesteko, ikertzeko eta sustatzeko egin zuen lana. Euskaltzaindiak ohorezko euskaltzain izendatu zuen 2004. urtean, eta 2022an zendu zen, 89 urte zituela.

Euskaltzaindiaren Nafarroako Ordezkaritzan egin den agerpenean, deialdiaren helburuak nabarmendu ditu Sagrario Aleman Jagon sailburuak: «Batetik, Pello Apezetxea ohorezko euskaltzaina omendu nahi genuen, eta, bestetik, soziolinguistika, dialektologia edota onomastika arloetarako ikerketa-lan bat egiteko beka eman nahi genuen, Pellok egindako ikerketei segida emateko». Bada, bi helburuak bete dira, bekaren irabazleek, Jon Martin Etxebestek, Paula Laita Pallaresek eta Ane Osua Cabidak, Bortzirietako hizkuntza-aniztasuna eta migratzaileen euskararekiko jarrerak sakonki eta zorrotz aztertu baitituzte.

Epaimahaiaren arabera, «ikerketa osoa eta landua» aurkeztu du lantaldeak, eta, gainera, «ikerketa teknika berritzaileak erabili dituzte, Haur Hezkuntzan egindako esplorazio esperimentalak, kasurako».

Bera, Lesaka, Etxalar, Igantzi eta Arantzan aritu dira ikertzaileak, eta azterlanean jasotako datuetatik ondorio ugari atera daiteke. Hona hemen garrantzitsuenak:

- Bortzirietako ikasle gehienak D ereduan daude, baina egia da atzeritar aunitz pilatzen dela A eta B ereduetan.
- Oro har, Bortzirietan etorkinek euskararekiko duten jarrera ona da. Areago, gehienek euskara (gehiago) ikasi nahiko lukete.
- Euskaldunek eta erdaldunek gaztelaniarekin lotzen dute ikus-entzunezkoen kontsumoa. Euskara ez dute modernotzat jotzen.
- Migratzaileek euskararen balio instrumentala aitortzen dute, lana aurkitzeko lagungarria baita.
- Euskarari komunikatzeko balioa aitortzen diote, harremanak egiteko ere lagungarria baita.
- Euskaraz ez jakiteagatik euskal kulturaren zati bat galtzen ari direla sentitzen dute kanpotik etorritakoek.
- Etorkinek euskara ikasteko baliabideak ezagutzen dituzte, baina euskara zaila delako ideia oso zabaldua dago.

Honela, lantaldeak etorkizunean esku hartzeko proposamen zehatzak egin ditu, eta migratzaileen integrazio linguistikorako erronka garrantzitsuak identifikatu ditu:

- Integrazioarena alde biko prozesua da. Ahalegina ez dagokie bakarrik kanpotik etorri direnei, bertakoek ere saiakera egin behar dute, eta, erraterako, euskaraz aritzeko espazio partekatutak eskaini.
- Kultur eta kirol jarduerak garrantzi handia dute, elkargunerako baliagarri diren neurrian.
- Euskara ikasteko berariazko ikastaroak eskaintzea proposatzen da, etorkinen ezaugarriak (ordutegia, lanbidea, bizilekua...) aintzat hartuta.

Azkenik, azpimarratu behar da ikerketaren emaitza Jagon bilduman argitaratuko duela Euskaltzaindiak eta, horrez gain, ikertaldeak lan hau Palmako Ideoling kongresuan aurkeztuko duela, datorren urriaren 18an.

Hizkuntzen Europako Egunean, Espainiako Diputatuen Kongresuan izan da Euskaltzaindia

Hizkuntzen Europako Eguna zela eta, Euskaltzaindia Madrilgo Diputatuen Kongresuan izan zen atzo. Honela, Espainiako Gobernuak antolatutako ekitaldian parte hartu zuen Andres Urrutia euskaltzainburuak, Estatuko beste hizkuntza ofizialetako ordezkariekin batera.

Francina Armengol Kongresuko presidenteak eta Ernest Urtasun Espainiako Estatuko Kultura ministroak estreinatu zuten ekitaldia, sarrera-mintzaldi bana eginez; ondoren, Estatuko hizkuntza ofizialetako ordezkariak hitz egin zuten, eta, azkenik, Rozalén kantariak Xabier Leteren *Xalbadorren heriotzean* interpretatu zuen, bertan bildutako guztien txalo zaparrada jaso zuela.

URRIA

Euskarak Bilbon izan duen lekua ezagutzeko erakusketa

Labayru Fundazioak *Bilbo*, *euskararen hiriburua* erakusketa aurkeztu du gaur jendaurrean. Erakusketaren bitartez euskarak Bilbon izan duen lekua eta

garrantzia jaso nahi da. Honela, xx. mendetik hona euskarak hirian egindako ibilbidea erakusten da, euskarari ekarpena egin dioten pertsonak eta erakundeak ardatz hartuta.

Bilboko Udalaren eta Euskaltzaindiaren babesa du erakusketa ibiltariak. Urrian Begoñako udaltegian izango da, azaroan San Inazio-Ibarrekolandan, Errekalden eta La Bolsan erakutsiko da, eta abenduan Castaños auzoan.

Gilkitxaro konpainiak jasoko du 2025eko LAUTAN3 laguntza, *Alferrak*, *tunanteak*, *maleanteak* lanagatik

Euskaltzaindiak antzerki-ekoizpena sustatzeko laguntza berria sortu zuen 2020an, Bilboko Udalaren babesarekin. Sari horren helburu nagusia euskarazko antzerkia sustatzea da, batez ere, lan laburren sorkuntzari bultzada emateko xedez.

Horretara, 2025eko LAUTAN3 laguntza Bilboko Gilkitxaro konpainiak irabazi du, *Alferrak*, *tunanteak*, *maleanteak* lan laburrari esker. Ane Zabalak, Aitor García de Vicuña eta Galder Perezek osatzen dute Gilkitxaro, eta konpainiak 2.500 euroko zenbatekoa eskuratuko du. Antzezlanak 2025eko otsailean antolatuko den VII. LAUTAN3 jaialdian estreinatuko da.

Epaimahaiko kideen arabera (Tartean, BIRA Kultura, 7Katu eta Euskaltzaindia), «gidoi kitzikagarria du antzezlanak, gai sakonak umorez jorratzen dituela, gaur egungo arazoei helduz».

***Alferrak*, *tunanteak*, *maleanteak*: sinopsia**

Pili, Mili eta Willi atzerriratutako hiru inurri dira eta nagi izateko eskubide unibertsala aldarrikatzen dute. Horra hor antzezlanaren abiapuntu originala. «Gozamenaren aldarrikapena eta anormaltasunaren apologia egin nahi du antzezlan labor honek», esan dute Gilkitxaroko kideek. «Bizi dugun gizarteak produkzioa bultzatzen du, gizakiari ia arnasa hartzeko tarterik utzi gabe, hausnarketan erortzeko tentaziorik gabe. Bada, klik azkar bat egin eta horri guztiari erantzun behar diogu», gaineratu dute.

Eduki berriak gehitu zaizkio *Noeren Ontzia* egitasmoari

Ahozko Literaturako atalean, Mayi Ariztiak, Resurreccion Maria Azkuek, Jose Migel Barandiaranek, Jean Barbierrek eta bestek jasotako ipuin eta elezaharrak gehitu zaizkio *Noeren Ontziari*, kontakizunak berak bezain indartsu diren ilustrazioekin hornituta.

Historia atalean, karlistaldien garaiko lekukotasunak, Mikela Elizegik eskainitakoak edota Frantzisko Apalategik jasotakoak; bandoren bat, soldadu karlistak desertatzera animatzen dituen esate baterako; edo garai hartan ondutako bertsoak, ez denak tristeak, Joseba Tapiak kantatzen duen *Apaizak tiraka pin-pon* delakoak erakusten duen bezala.

Gaurko idazleei ere egin zaie tokia: Inazio Aiestaran, Koldo Izagirre, Joseba Sarrionandia..., eta baita testuen edukiari dimentsio zabalagoa ematen dioten irudi-bilduma, audio, bideo eta abarri ere.

***Noeren Ontzia*: helburuak eta egitura**

Euskaltzaindiak, gazteen artean den euskal kultura-ondarearen gaineko ezagutza urriaz eta haien irakurmenaren gainbeheraz kezkatuta, eta, ildo beretik joanda, euskal kultura lantzeko material didaktiko adostu baten hutsunea zegoela ikusirik, *Noeren Ontzia* proiektua mamitu eta plazaratu du. Euskal kulturaren itsasoan zehar ibiltzeko tresna digitala da, eta denon eskura dago, Euskaltzaindiaren webgunean.

Noeren Ontziak sei atalotan banatuta ematen ditu testuak: Historia, Herri-kultura, Hizkuntza, Literatura, Ahozko Literatura, Gaurko Gizartea eta Abestiak.

Ahozko hizkera aztergai *Mintzola* mintegian

Euskaltzaindiak mintegi berria antolatu du Akademiaren Gipuzkoako Ordezkaritzan, hain zuzen, Luis Villasante Euskararen Ikergunean. Jon Sarasua eta Eñaut Agirre dira *Mintzola* egitasmoko zuzendariak, eta Sarasuak egin du hastapeneko mintzaldia. Bertan, mintegiaren helburuak azpimarratu ditu:

«Mintzola egitasmoak, bere aro berrian, euskarazko eguneroko hizketaren galdegaiak jarri ditu erdigunean. Hizkera informalak gure eguneko hizketajardunean zati handia hartzen du, eta gai horretan ataka bereziak bizi ditu euskarak. Gai horren inguruko ikerketa-ildoak abiarazi ditu *Mintzolak*: hizkera informala ezaugarritzetik hasi, beronen problematikak aztertzetik segi, berau landu eta hobetzeko metodologietatik pasa, eta hitanoa bezalako baliabideak aztertzeraino. Bultzatu beharreko bideetako bat ikerlari gazteei aukerak ematea da, gradu eta masterretako ikerketak sustatuz, eta ikertzaile harrobia sortuz. Horretarako arlo honetako ikerketak saritzeko deialdia egin genuen joan den ikasturtean ere, eta hainbat ikerketa saritu. Gaur, arlo honetan azken urtean egin diren edo martxan dauden ikerketak aurkeztu dira».

Guztira, zazpi ikerketa-lan eta *Arikala* ekintza-ikerketaren azken emaitzak aurkeztu dira. Hona hemen *Mintzola* deialdietan 2024an saritutako bost ikerketak:

- *Hitz funtzional goiztiarrak: haur euskaldun elebakarren hizkuntzaren jabekuntzaren azterketa* (Garazi Domínguez / Gradu amaierako lana).
- *Euskal hizkeren erritmoa* (Maddi Ormazabal / Gradu amaierako lana).
- *Hezkuntza formalean, aisialdi-antolatua eta ludikotasuna ardatz, euskarazko hizkera informalean ikas-irakaskuntza: zailtasunen gainetik onura anitz* (Odei Guirado / Master amaierako lana).
- *Nokaren higitzea Ortzaizen* (Ana Jaunarena / Master amaierako lana).
- *Goizuetan noka berreskuratzen hasteko ikerketa-proiektua* (Oihana Lujanbio / Ikerketa monografikoa).

Mintzola deialdietan saritutako lanez gain, beste ikerketa interesgarri bat aurkeztu da gaur Tolare baserrian, hain zuzen, Maddi Kintanaren master amaierako lana (*Gazteen hizkera BAM eta inguruan*).

Azkenik, Ikastolen Elkartek, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak (HUHEZI) eta Euskaltzaindiak elkarlanean bideratutako *Arikala* lagunarteko euskara sustatzeko eta esku-hartzeen eragina neurtzeko ekintza-ikerketaren azken emaitzak aurkeztu dituzte Idurre Alonsok eta Xabi Lasak; eta, horrez gain, *Mintzolak* lagunduta Eñaut Agirre jorratzen ari den *Ahozko hizkeraren ezaugarriak* ikerlanaren lehen ondorioak plazaratu dira.

Olabide ikastolak eta Euskaltzaindiak lankidetzahitzarmena sinatu dute

Olabide ikastolak eta Euskaltzaindiak lankidetzahitzarmena sinatu dute Akademiaren Arabako Ordezkaritzan. Hitzarmenari esker, ondorengo bost urteetan Olabide ikastola eta Euskaltzaindia lankidetzan arituko dira ikastolako jardun akademikoan, eskolaz kanpoko jardunean, bai eta Olabide osatzen duen hezkuntza-komunitatearen eguneroko bizitzan ere, euskararen ezagutza, euskararen erabilera eta euskal kultura hedatzen duten programetan.

AZAROA

***Hitzak lege:* garrantzi historikoa izan duten euskarazko testu juridikoak, Donibane Garaziko Herriko Etxean**

Gaur, azaroaren 6an, estreinatu da eta 2024ko abenduaren 6ra arte izanen da ikusgai. Erakusketa honen helburua da eremu juridikoan urteetan euskaraz egin den ekarria gizarteratzea eta jendeari erakustea.

Euskaltzaindiak *Dibiña II* ikerlana aurkeztu du, *Gasteizko Toponimia* egitasmoaren azken liburukia

Gasteizko Toponimia egitasmoa zarratzen duen azken liburukia aurkeztu da Arabako hiriburuan. Gasteizko Udalak eta Euskaltzaindiak duten lankidetzahitzarmenak eman duen azken emaitza da *Dibiña II*, ia 30 urteko ibilbideari amaiera ematen dion argitalpena. Agerpena udaletxean egin da, eta bertan izan dira María Nanclares Gasteizko Udalaren Euskara zinegotzia, Roberto González de Viñaspre euskaltzain oso eta Akademiaren Arabako ordezkaria, eta Elena Martínez de Madina ikertzaile, euskaltzain urgazle eta ikerlanaren egilea.

María Nanclares Gasteizko Udalaren Euskara zinegotziak erakundeen arteko aspaldiko elkarlana gogoratu du prentsaurrekoan. Bertoko toponimia berreskuratzeak daukan garrantzia ere azpimarratu du, eta, horrekin batera, ondare hori gizartearen esku jartzeko beharra. Roberto González de Viñasprek

azken hamarkadetan Gasteizko Udalak emandako laguntza sendoa eskertu dio Maria Nanclaresi. *Gasteizko Toponimia* egitasmoaren zuzendaria ere bada González de Viñaspre. Ildo horretan, haxe nabarmendu nahi izan du euskaltzain arabarrak: «Proiektu handi bati amaiera ematen dion liburukia dugu begi-eskuetan. Egitasmo honen altzora bildutako bederatzi liburuki mardul hauek gaurko herritarrontzat informazio-bilduma bikaina osatzen dute, eta bihar-etzikoentzat legatu jori bezain baliotsua dira».

Ikerlan praktikoa

Egitasmoak urteetan eskatu duen landa-lana Elena Martínez de Madina ikerlari eta euskaltzain urgazleak egin du, Gasteizko udalerri osoko toponimia aztertu duela azken urteotan, hots, hiria bera eta 64 herri. Gaur, lan erraldoi horren bederatzigarren eta azken ahalegina aurkeztu da: *Dibiña II*. Esan bezala, egitasmo zabal honetan, hiriburuaz gain, Gasteizko beste 64 herriak ere sartzen dira: Malizaeza, Ubarrundia eta Langraiz merindadeetako lanak argitaratu ziren beste sasoi batean (4 liburuki); jarraian, Arratzua deritzonaren aldia iritsi zen (hiru liburukitan banatu zen ikerketaren emaitza), eta gaur Dibiñari dagokion bigarren CDa agertu da, liburuki itxuran.

Lanaren garrantzia argi geratu da, baina ikerlariak bestelako kontu bati erreparatu nahi izan dio, hain zuzen, egin duen lanaren erabilgarritasunari: «Proiektu honek ondorio praktikoak izan ditu, berreskuratu ditugun izenak auzo edo leku berriak izendatzeko erabili izan direlako sarritan, eta desitxuratuta zeuden toponimoak zuzentzeko ere baliagarria izan da».

Euskaltzaindiaren egitasmo erraldoi honen datu-baseak 400.000tik gora sarrera toponimiko ditu, bederatzi liburukietan 121.000 datu dokumental publikatu dira eta 13.086 sarrera toponimiko arautu.

Itxaro Borda, Miren Agur Meabe eta Paskual Rekalde, Euskaltzaindiaren Zuzendaritzako kide berriak

Euskaltzaindiak osoko bilkura egin du gaur Bilboko Sociedad Bilbainaren egoitzan, eta bertan aukeratu du datozen lau urteetan Akademiaren jarduna gidatuko duen lantaldea. Bozketa egin ondoren, haxe erabaki dute euskaltzainek: Andres Urrutiak jarraituko du Akademiaren buru, eta bere ondoan izango dira

Itxaro Borda (buruordea), Miren Agur Meabe (idazkaria), Roberto González de Viñaspre (diruzaina), Miriam Urkia (Iker sailburua) eta Paskual Rekalde (Jagon sailburua) euskaltzain osoak. Beraz, Batzorde parekidea izango du Akademiak ondorengo lau urteetan, euskararen lurralde guztiak hartzen dituen, Itxaro Bordak Ipar Euskal Herriko hiru lurraldeak ordezkatzeko dituen.

Hortaz, Zuzendaritzan lehendik aritu ez diren hiru kide berri izango dira (Itxaro Borda, Miren Agur Meabe eta Paskual Rekalde) eta beste hiru kidek utziko dute Akademiaren artezkaritza-organoa, hain zuzen, Jean-Baptiste Coyosek, Adolfo Arejitak eta Sagrario Alemanek.

ABENDUA

**Diputatuen Kongresuak eta Euskaltzaindiak hitzarmena sinatu dute hizke-
ra juridikoan euskararen jakintza eta zabalkundea sustatzeko**

Euskararen Egunean, lankidetzak hitzarmena sinatu dute Espainiako Diputatuen Kongresuak eta Euskaltzaindiak. Akademiaren egoitzan izan da ekitaldia, eta bertan izan dira Francina Armengol Diputatuen Kongresuko presidentea eta Andres Urrutia euskaltzainburua, Akademiaren Zuzendaritzako kideekin batera.

Kongresuarekin gaur sinatutako lankidetzak hitzarmenak ere berebiziko garrantzia du, hizkera juridikoan euskarari buruzko prestakuntza, jakintza eta zabalkundea sustatzeko aukera berriak emango dituelako. Akordioak helburu bikoitza duela adierazi du Andres Urrutiak gaurko agerpenean: «Lehenengoko helburua sinbolikoa da, non Espainiako Estatuaren botere legegilearen ordezkariak eta Euskaltzaindiak, euskararen arloko erakunde aholku-emaile ofizialak denak, indarrak aitortu eta batzen dituzten Espainiako Kongresuan hizkuntza koofizialak erabiltzeko ofizializazioa edukiz hornitzeko. Beste alde batetik, benetako eragina dago, egunerokotasunean nabarmena izango dena: testu juridikoen ikuspegitik aurrera egitea, Espainiako Estatuak bere lurralde osoan egikaritzen dituen eskumen zabalei eragiten dieten lege-proiektuek korrelazioa izan dezaten Estatuak hizkuntza koofizialekin».

Euskaltzaindiak bi ikerlan aurkeztu ditu 59. Durangoko Azokan

Iñaki Iurrebaso soziologoak *Gako berrien bila: hHizkuntza gutxituen jarraipena, ordezkapena eta indarberritzea neurtzeko demolinguistikazko tresna metodologikoak* garatzen ikerlana aurkeztu du Talaia espazioan, eta beste horrenbeste egin du Luis Mari Zaldúa hizkuntzalariak bere azken lanarekin: *Antzinaroko sustrai indoeuroparreko jende izenak: Araba eta Nafarroako sartaldea*.

Iurrebasorekin batera agerpenean izan ziren Josune Irabien Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko zuzendaria eta Patxi Juaristi Euskaltzaindiko Sustapen batzordekidea. Halaber, Zalduak bere ondoan izan zituen Joseba K. Pérez de Heredia Arabako Foru Aldundiko Euskara eta Gobernu Irekiaren zuzendaria eta Roberto González de Viñaspre Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordeko burua.

Erraimun Olabide euskaltzainaren euskarazko Biblia eskuragarri jarri du Euskaltzaindiak webgunean

Erraimun Olabide josulagun eta euskaltzain osoaren (Gasteiz, Araba, 1869 - Tolosa, Okzitania, 1942) euskarazko Biblia erabiltzaileen esku jarri du Euskaltzaindiak, Akademiaren webgunean eskegita. Olabideren Biblia bere belaunaldiaren goiburuaren ildoan kokatu behar da: *Baina nik, hizkuntza larreakoa, nahi haunat noranahikoa* (Lizardi, 1931). Beraz, euskara noranahiko bihurtzeko ahaleaginean ondutako lana da hau. Horrek argitzen dizkigu egindako hautuak eta erabilitako moldeak. Ez zen hori izan Arantzazuko Biltzarraren ondotik (1968) Euskaltzaindiak hartu zuen bidea, baina egokia da idazlan erraldoi hau berreskuratzea, aztertzea, eta egokiro balioetsi eta baliatzea, gizartearen esku jarrita.

Beraz, Euskaltzaindiak webgunean jarri duena ez da edizio kritiko bat, helburua ez baita liburuaren orrialdez orrialdeko argazki hutsa eskaintzea, bilaketa-sistema eraginkor batez hornitzea baizik.

Argitalpen honek bi baliabide nagusi ditu:

- Liburuaren orrialdez orrialdeko argazkiak eskaintzea, azken buruan testuarekiko erabateko fideltasuna ziurtatzeko.

- Bibliaren kontsultan bilaketa-sistema erabiltzea, hots, aipuak liburuz liburu, kapituluz kapitulu eta txatalez txatal errazki aurkitu ahal izatea, adibidez, honela: (Lk 4, 1-9) [*Lukasen ebanjelioa*, 4. kapitulua, 1-9 arteko txatalak].

Olabideren bizitzako lan nagusia da katolikoen Biblia osoaren itzulpena, jatorrizko testuetatik abiatuta (hebreera eta grekoa). Dirudienez, 1921ean ekin zion lanari eta lehen emaitza 1931n argitaratu zen (*Itun Berria*). *Itun Zarra* 1937rako ia-ia amaituta zeukan lana, baina Gerra Zibilak haren lana eten zuen. Erbestera jo zuen eta 1942an hil zen, istripuz. 1955ean, josulagunek Olabideren Biblia argitaratzea erabaki zuten eta lana gauzatzeko ardura Patxi Etxeberria (1900-1989) josulagunari esleitu zioten, hura Txinatik etorrazazita.

1958an argitaratu zen *Itun Zâr eta Berria*, hots, orain Euskaltzaindiak sarean jarri duen liburua. Koldo Mitxelenak iruzkin sonatu bat egin zion *Egan* aldizkarian, euskararen historian aro baten amaiera eta beste baten hasiera adierazten duena: «Saioa egina dago. Ez dago bide horretatik Olabide baino gorago joaterik».

2024ko Ahots Baten sormen-egonaldia Lekarozen izan da

Mintzola egitasmoaren bidez egiten da sormen-egonaldiak euskarazko ahozko sorkuntzan dabiltzan gazteak elkartzeko, beraien artean harreman-sareak ehuntzeko eta adierazpide ezberdinak esperimentatzeko helburuz sortutako saioak dira.

Ilustrazioa, kantagintza, literatura, antzerkia eta bertsolaritza landu dira egonaldian, sortzaile hauen eskutik: Dom Campistron, Maite Larburu, Mikel Ayllon, Garazi Urkiola, Xabat Gallettebeitia eta Sarai Robles.

2024ko *Ahots Baten* sormen-egonaldia abenduaren 26tik 30era izan da, Lekarozko (Nafarroa) aterpetxean.

Klima-aldaketa da urteko hitza Euskaltzaindiarentzat eta UZEIrentzat

Klima-aldaketa ez da aurten sortutako kontzeptua: urteak dira askoren ahotan dabilela. Halere, azkenaldian, gero eta maiztasun handiagoz erabili da komunikabideetan, jendaurreko solasaldietan eta sare sozialetan.

Hiztegian adibide gisa lehenagotik jasota egon arren, **klima-aldaketa** esamoldea 2022ko urtarrilaz geroztik dago azpisarrera gisa *Euskaltzaindiaren Hiztegian*. ‘Lurreko klimaren ezaugarrien aldaketa, bereziki giza jarduerak eraginikoa’ adierarekin eta meteorologiaren arloko terminoa dela adierazten duen markarekin jaso du Euskaltzaindiak.

Aurten, gero eta ohikoagoak diren muturreko zenbait gertakari meteorologikok —hala nola lehorteak, uholdeek, poloetako izotz-geruza urtzeak edo batez besteko tenperaturaren gorakadak— areagotu egin dute klima-aldaketaren gaineko kezka. Besteak beste, aurtengoa inoiz izandako urterik beroena izango dela iragarri dute.

Eta, horrenbestez, albiste horietako askoren harira, protagonismo berezia eta etengabekoa izan du aurten hedabideetan eta bestelakoetan **klima-aldaketa** esamoldeak.

Gainera, horixe da erabilera zabalena duen terminoa, pareko beste esamolde batzuekin alderatuta.